

GOIKO MAILA – MAILA AURRERATUA (B2)

AHOZKOA

1. BAKARRIZKETA - AZALPENA.

Egokitu zaizun gaiaz hitzalditxo bat prestatu behar duzu. Horretarako, testu labur bat duzu abiapuntu, eta garatu beharreko zenbait ideia beherago.

1. Zarataren legea

Isiltzen ez den bizilaguna



Zenbat salaketa ez ote da jarri izango zarata dela eta. Hortxe jarraitzen du, ordea, milaka lagunen belarriek kolpeka. Etxe ondoko eraikinean egiten ari diren lanek iratzarriko gaituzte goizean, autobideko klaxon hotsek lagunduko digute lanera, lankide eta telefono guztiak aldi berean egingo digute abegi lantokian, eta gero ere gurekin jarraituko dute. Gaur bai eta bihar ere bai. Baina eguna ez da bukatu... Gaueko garbiketa zerbitzuko kamioia etortzeko dago oraindik, eta gaueko azken musika notak ere aditzen dira, tabernaren

batean ez bada, inguruko etxeren batean. Ezin begiak itxi lo kantarik gabe...

Zaratak neurri guztiak gainditu ditu. Espainiarren % 70ek zarata maila "onartezinak" jasan behar izaten dituzte. Zaratak kalte zuzena egiten dio osasunari, baina ez hori bakarrik: eragin soziokultural eta ekonomiko kaltegarriak sortzen ditu gainera. Eta eragin horiei aurre egiteko, Zarataren Legea onartu zuten 2003. urtean. Lege horrek zehazten du, besteak beste, etxebizitzaren kalitate akustikoa hobetzeko zer neurri hartu behar diren, eta neurri horietako bati leku berezia egin diote Eraikitze Lanen Kode Teknikoa izeneko araudian: eraikinek zer ezaugarri akustiko dauzkaten egiaztatzeko sistema bat ezartzen du araudi horrek, eta eraikinen barrualdeko kalitate akustikoak bete behar dituen helburuak bete ezean, eraikinek akats ezkutu bat dutela esan ahal izango da.

Berba egiteko puntuak

- Non eta nork sortzen du zarata? Trafikoak, obrek...
- Legedia nahikoa zorrotza ote da?
- Diskotekarik edo tabernarik eduki nahi zenuke etxe ondoan?
- Herriko jaietan barraketara joaten zara? Molestatzen zaitu zaratak?
- Belarrietan MP3rik edo antzekorik jartzen duzu?

